




CC OO
Kutxabank
atal
sindikala

Gurekin kontaktatu

94 4017024
943 001425
945 162455

ccoo@kutxabank.es
kutxabank@servicios.ccoo.es

Zk. 48 **2018**ko Apirila

<http://www.ccoo-servicios.es/kutxabank/>

FORGES



IN
MEMORIAN

Beti
gurekin

FOR EVER

Langileak lehenengoz

Orain dela aste batzuk notizia bi aurreratu genizkizuen: lehena, enpresak azkenekoz itzuleren bidea jorratzen hasteko asmoa dauka; bigarrena, behin-behineko kontratuen zenbateko handi bat behin-behineko bihurtuko ditu.

Kutxabanken dagoen giro sindikal arraroak baino ezin ditu bihurtu berez oso notizia onak direnak gure sindikatuarenganako eraso, empresa baketan uzten duen bitartean. CCOO sindikatuko afiliazioari frankista deitzea, gureganako errespetu faltak lan sindikal egokia iruditzen bazaie, guk ez dugu segundorik ere emango beraiei erantzuten. Bakoitzak bere iragana ezagutzen du eta bere etorkizunaren lerroak egiten ditu. Askotan, hutsaltasuna eta lotsagabekeria bide beretik doaz.



CCOO



Itzulerak, esan ditugu. Nahi duten pertsona guztiena ez, nahiz eta berau gure helburua izan. Urteak eman ditugu eske eta eske, eta azkenekoan enpresak bere asmoa aldatu du. Lehen pausua oso garrantzitsua da, bidea egiten hasi egin gara-eta: 10 pertsona Bartzelonara eta beste 10 Madrilera. Pozik gaude, baina ez guztiz, harik eta itzuli nahi duten pertsonak guztiak beraien jatorrizko lurraldeetan bueltatu arte. Beraien jatorrietara itzuliko direnengatik bene-benetan poztzen gara.

Era berean autobusek ere 25 eserleku gutxiago beharko dituzte. CCOO sindikatuak ez zituen bete, eta guk bakarrik ez ditugu hustuko orain. Sindikatu guztien eskaera bateratuek (batasun sindikal barik ere helburu berdinak konpartitzen ditugu) baino ez dute lortuko.

“Leku aldaketez” berba asko egiten da, eta gezur eta erdi-egi asko esaten dira “nahasteko” asmoz. CCOO sindikatuan beti esan izan dugu gauza bera: enplegua tokatzen zenean, horixe babestu genuen eta egoera aldatutakoan, itzulerak esijitzen ditugu. Oraingoa lehenengo txanda bat da, eta zuzendaritzak ildo beretik jarraitzea espero dugu.



CCOO

30
80
+ 110
220

Behin-betiko kontratazioa, hori ere bagenioen. 2018an gutxienez 110 kontratu finko, horietatik 80k behin-behineko kontratu bihurketak. Benetan, oso albiste ona. 2017an ere holan izan zen beste 80 izan zirenean, eta horiei gehitu behar dizkiegu 2016ko abenduaren 31an finko bihurtu ziren 30 kontratuak. 2018a bukatzean gutxienez 220 kontratu bihurtu dira bi urtetan. Sektoreko lan baldintza onenetarikoak dituen enpresan baten lan-etorkizun bat eskaintzea oso garrantzitsua da, bai lankide berrientzako bai entitatearen etorkizunerako. Garrantzi hau guztiek, antza denez, estimatzen ez dutena.

Hauteskunde urte honetan, gure burua laudatzeko editorial askoz luzeagoa egin genezake, baina ez da kontua. Langileek CCOOko delegatuak garenok lana dakigun ahalik eta ondoen egiteko aukeratu gintuzten. Denok bezala lankideak gara, ez aztiak, ez sorginak. Batzuetan ondo egiten dugu gure betebeharra, besteetan ez hain ondo, baina beti gure ahaleginik handienarekin. Beti-beti, plantilla da nagusi!

Zalantzak kanpora!

Ez da arraroa, ordaindutako baimenen egunak gozatzeko beharra izan eta egunak noiztik kontatu hasi behar direnean zalantzak agertzea. Badirudi Giza Baliabideen administrazioa kudeatzen duten pertsonak ere ez dauketela argi, izan ere oso erantzun desberdinak eman izan dituzte: gaur egun zuria dena, bihar agian beltza izan liteke, baina ia beti gehienetan murrizketa eta guzti.

Epaitegi Goreneko Gizarte Saila geure fabore etorri zaigu. Guztion fabore: enpresa zein langileena. Ambiguotasuna bukatu egin da. Orintsuko sententzia, otsailaren 13ko 145/2018 delakoan, CCOOk parte hartzen zuen eskaera bateratua estimatu du, eta Kutxabanken hain indartsu jarduten duten zenbait sindikaturen falta somatu da, beti ere oso prest halako berriaren buru agertzeko aldiz. Ondo, ba EGk zera dio:



CCOO

Ordaindutako baimenen egunak gozatzeko lehen eguna, gertaera eragilea jai egunean ematen denean, jarraian den lehen laneguna izan behar da.

Ezkontza

**Istripua edo
gaixotasun larria**

**Ospitaleratze
edo ebakuntza
kirurgikoa**

Heriotza

Eta hau zergaitik? ba logika hutsagatik. Langileek lanpostuan huts egin ahal izango dute dirusariaren eskubidea gordeta... baimena lanegunean lanpostutik alde egiteko ematen da, jaiegunean ez baitago horren beharrik.

Hain argia izanda, ez dago beste zer esanik. Hala ere, Giza Baliabideetakoei jakinaren gainean jarri genien, Kutxabanken berehalako aplikazioa izan zezan.

Enpresarentzako txanda

Mifid-ek produktu batzuk saltzeko erari eragin diola argi dago. Baina Mifid II ez da hori bakarrik, bezeroa babestu nahi duen jarraibidea da. Horretarako gero eta hobeto prestatutako plantillak behar dira (soberan betetzen duguna), baina **entitateei produktuen diseinu eta salmentetan eskakizun zorrotzagoak** ere bai. Beharrezkoa da bezero eta lankideen arteko **interes konfliktuak** ekiditea.



CCOO sindikatuan ez dugu uste enpresak azken puntu honi buruz behar den ardura hartu duenik. Kontrakoa dirudi, gorrarena eginez, **araudi berriak eragindako produktuak oraindik objetibotzat hartzen baitira**. Gure ordainsarien parte bat produktu hauen salmentak baldintzatzen badu, argi dago interes konfliktu bat dagoela. Gure aburuz, **europar araudiak argi eta garbi debekatzen du jokabide hau**.



Entitatearen zuzendaritzak uste du egoki jokatzeko dabilela, baina ez gaudenez ados, **geure aholkularitza juridikoa egoera hau aztertzen dago**.



Praktikan uste dugu larriagoa direla zuzendarien presioak: eskatzen diren salmenta konpromisuak, bulegoak eta plantillak konparatzen dituzten excel orriak, produktu hau edota bestea oraindik saldu ez direla gogoratzeko jasotzen diren deiak...**Jokabide hauek errotik guztiz baztertu behar dira, saltzearen aldeko presio hauek sortzen baitute irudikatu daitekeen interes konflikturik handiena.** Lanpostua galtzeko beldurra dagoenean (ez gara kaleratzeaz ari, baizik eta zuzendari, zuzendariorde, banka pertsonala, gestorea... izateari uzteaz) **jasotako presioa jokabide txar bihur daiteke.**

Enpresak bere interes guztia jarri behar du arretagune biotan: Mifid II-k markatutako produktuak helburu komertzial guztietatik kentzea, eta berauek saltzeko langileei eginiko presioak erabat errotik kendu.

CCOO sindikatuan aurretik azaldutako egoeren aurrean **adi egongo gara** eta enpresaren aurrean salatuko ditugu europear araudia urratzen dituen praktika guztiak. Langileriak prestakuntza-betekadak izan baditu, Kutxabankek ezin du jokatu Mifid II indarrean egongo ez balitz bezala.



Turbo-busa



Laneko arriskuen artean, desplazamenduak izaten dira ohikoenetakoak, gutxienez ohikoena ez bada. Egunero laneguna hasten dugu etxetik lantokira irteera-ibilbide bat egiten, eta bueltan, bide bera errepikatzen dugu. *In itinere* deritzon arriskua da, eta arrisku hori gabeko enpresarik topatzea zaila izango da.

Kutxabanken gertatu egiten da. Izan ere, emandako datuak fidagarriak badira, istripu gehien sortzen duen arriskua da. Erabat ezabatzea ezinezkoa dela jakina denez, enpresak hori gutxitzeko nahikorik egiten al du? Ezetz esan dezagun: gehiago egin lezake. Eta egin egin beharko luke.



Egunero autobus bana Bilbo eta Gasteiz / Donostia artean ibiltzen da. Goizean goiz jrtetzen dira, eta arratsalde-arratsaldean bueltan izaten dira. Neguko ostegunetan, gau-gauean. Kutxabank arduratzen da, kontratatzaile interesdun bezala, zerbitzua kalitate egokikoa ote den, autobusak ez ote diren zaharrak, bidaiaren segurtasun eta erosotasun baldintzak errespetatzen ote dituzten? Antza denez ez, gertatzen diren intzidentzien arabera.



Arriskuaren beste faktore larri bat zuhurtasun eza da. Autobusek batez ere bueltako bidaia egiten duten **abiadura eta zakartasunagatik, Donostia-Bilbo egiten dutenen kezka salaketa heldu zitzaigun**, gero Giza Baliabide Departamentuari bidali geniona... Ezer egin ote du Kutxabank-ek, zerbitzu kontratatzaile bezala, horrek dakarren arriskua murrizteko? Ez du ematen, berdin jarraituko dugula berriki jakinarazi digutelako.



Segurtasuna

Zuhurtasuna

Erosotasuna

Kalitatea

Zenbat kostatzen al da kontratatutako enpresari ohar bat ematea? Ezin al ditu lantzean behin inkestak egin langileen parte garrantzitsu honen artean, zerbitzuaren gogobetetasuna edo atsekabea egiaztatzeko, beharrezkoa den segurtasunari eusteko? Edo agian, MIFIDen bezala, "ordaintzen dizut, arazorik gabe baketan utz nazazu" eran ote gaude? **Aurrera egiteko arau estandar batzuk behar ditugu, irizpide batzuk jarraitu behar ditugu eta CCOO sindikatuak horiek ezartzeari ekingo dio.**

Honez gain, beste lankide batzuek bere bidaia partikularra egin behar izaten dute enpresa honetan amorez-edo emandako oso destino desatseginengatik. Oso osoan sinestuta gaude interes apur bat jarritz gero, **kasu asko konpon litezkeela, bide batez ibilbideak murriztuz.**

Ez da demagogia. CCOO sindikatuak esaten du Kutxabankek bere sarearen barruan bidaia murrizteko neurriak har litzakeela eta hartu egin behar dituela. Prebentzioa derrigorra du, Legez bete behar duena.

Desberdintasunen sortzailea



Martxoko nominan “pizgarri aldakorrak” abonatu zizkiguten, enpresak bere kabuz ordaintzen duen zenbatekoa inorekin ezer adostu gabe. Sindikatuaren ikuspegitik ez dugu batere gustukoa neurri hau, norberaren bulegoko gestoreak gehien presionatze dituenaren jarrera “saritzen” duelako. Edonola ere, desberdintasunen sortzailea da.



Bide hau batere gustukoa ez izateak ez du esan nahi Kutxabanke diskriminatzen jarraitzea onartuko dugunik. Gustatu ez gustatu, pizgarri aldakorrak bertan ditugu, geure artean, eta **behin-behineko lankideek ere hori jasotzeko eskubidea dute**. Egoera hau dela eta, CCOO sindikatuak aspalditik enpresari eskatu izan dio “irregularitasun” hau zuzentzeko. Nola egin behar duten ez da arazoa, egin nahi izatea baino ez.



Horregatik Kutxabanki eskatzen diogu adostu beharreko akordio baterako aukera ez dezala bertan behera utz. Espero dugu ez dezala alferrik gal aukera hori; eta zentzunez jokatuta, ez diezagun joarazi baztertzeak diren estamentuetara.



Bolivian... “Bartolinak”

Boliviako Emakume Nekazarien Konfederazio Nazionala “Bartolina Sisa”, “Bartolinak” izenarekin ezagutzen dugu. Lehen erakundea izan zen Hego Ameriketako emakumeen erabateko parte-hartzea aldarrikatzen landa eremuetan erabaki ekonomiko, sozial eta politikoak hartzeko. Bere izena heroia den Aymara Bartolina Sisiari zor diote, XVIII. Mende erdikaldean esplotazio kolonialistaren aurkako altxamendu ugariaren buru izan zena.



Gaur, 38 urte geroago, “Bartolinek” bere lana indartu dute baita euren presentzia herrialdeko hainbat departamentutan, “Bartolina Sisa” Santa Cruzeko Emakume nekazarien Departamentu Konfederazioa adibide. Lan ibilbide luzea dute landa eremuetan kultura nortasunaren indartzea eta bertako emakume nekazari indigenen ekonomia, gizarte, politika eta kultura eskubideen defentsan egindako lanak erakusten duen moduan.



Bolivian, jarduera ekonomiko nagusi moduan bere baliabide naturalen ustiapenean ibilbide luzea duen herrialdea, azken legealdietan ekoizpen matrizea aldatzea bilatu da, ekonomia plurala indartuz, manufaktura ekoizpen artisaua, industrial eta agroindustrial murriztuta, naturarekiko oreka handiagoa finkatzeko. Hala ere, lan esparruan langabezia tasa eta ekonomia ez-formalean emakumeak dira nagusi, hórrela lanaren sexu banaketa gehiago sakonduz. Landa eremuen kasuetan, emakume nekazari indigenak dira gehienbat genero desberdintasunak gehien pairatzen dituztenak.



CCOO

Egoera honen aurrean “Bartolinak” euren esku-hartze politiko ahalmena handitzen saiatzen dira, hausnarketa bateraturako espazioak indartuz eta horrekin batera dauzkaten ekoizpen proiektuak ere indartuz. Gizarte oinarri antolatuta edukitzeak ematen dien legitimotasuna eta elkartruke prozesuetatik eratorritako sargaiak, estatu mailan zein nazioarte mailan, euren aldarrikapenetan aurrera egitea ahalbidetzen du.





Euren lana bertako emakume nekazari indiginen aurkako edozein eraso edo indarkeriaren aurkako borrokan zentratzen dute. Hala ere, azken urteetan indarkeria ekonomikoaren ikustarazte eta salaketak indarra hartu du, ahalduz eta lidergo prozesuak sustatzen jarraitzea beharrezkoa dela ikusita, eskubide sozio-ekonomikoen aldarrikapenaren bitartez eta alternatiba moduan elikagaien subiranotasuna sustatzearen alde eginez, euren Konstituzioan jasotzen den "Buen Vivir" ereduarekin bat eginez.



Euskadiko Bakea eta Elkartasuna Fundaziotik, uste dugu, begirada bestelako testuinguruetara zabaltzea, hausnarketan elkartrukatzeko espazioak sustatzea eta nazioarte mailan lan proposamenak garatzea ezinbetseko estrategiak direla nazioarteko ekintza sindikalean aurrera egiten jarraitzeko, oinarritzko zutabe moduan, ikuspuntu feminista duen perspektiba batetatik giza eskubideen erabateko egikaritzea dagoela. Uste dugu "Bartolina" emakumeek egiten duten lana indartu eta ikustaraztea sakonago joanarazten gaituela, emakumeek testuinguru desberdietan jasaten dugun indarkeria ekonomikoa ikustarazten duela, baldintza berdintasunean lan duina egikaritzea lortzeko bidea oztopatzen duena.



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxe: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta ☐
Datu Aldaketa ☐

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA
JAIOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA		SEXUA
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA
			EZ
			BAXUA
			ERTAL
			ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZIOA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA	FEDERAZIOA	SEKTOREA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA
		KONTRATU MOTA

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren araberrako lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen araberrako federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

ZORDUNTZE ZUZENENKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskubidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketa egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketa hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR)					
	C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			

NAN edo AIZ

Sinadura